



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko apirilaren 17a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zergatik den ezberdina Nafarroak Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorretan eta 2012rako Nafarroako aurrekontu orokorretan, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (4. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Osasun Zerbitzuan koordainketa sartuko ote duen, Marisa De Simón Caballero andreak egin (5. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak abian jarriko dituen Alderdi Popularrak iragarritako neurri ekonomikoak, zerga-amnistiari eta osasun nahiz hezkuntza arloko murrizketei dagokienez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (5. or.).
- Galdera, Administrazio Publikoko teknikari lanpostuetarako oposizioan plika-sistema aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Miranda jaunak 2011ko irailaren 15ean Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Akitaniarekiko lankidetzak hitzarmenari dagokion kontusailaren bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen administrazio-tasen eta administrazio-zerbitzuengatik prezioak igotzea. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, onura fiskalen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendeiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

- Galdera, genetikoki eraldatutako makalekin landa-probak egiteko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako eta Madrilgo ordezkariak eginiko bilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udalerrak katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua dela dioen iritziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko apirilaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Iratxeko Paradorearen proiektuari jarraipena eman diezaion, bi administrazioek negoziatu, hitzartu eta sinatutako akordioen esparruan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko apirilaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alfontso XII.a Gotorlekuaren azterlan historikoa eta arkitektonikoa egin dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Alfonso XII.a Gotorlekuaren gaineko historia- eta arkitektura-azterlana egin dezan, Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak aurreikusitako jarduketan esparruan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azken bururaino eraman dezan Ezkabako etorkizuneko eskualde-parkearen udalez gaindiko proiektu sektoriala izapidetze-ko eta onesteko prozesua, behin sustatzaileek, beren udal-mugapean Ezkaba mendia hartzen duten zazpi udalek eta Iruñerriko Mankomunitateak, hura bukatuta.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik den ezberdina Nafarroak Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorretan eta 2012rako Nafarroako aurrekontu orokorretan.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik den ezberdina Nafarroak Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorretan eta 2012rako Nafarroako aurrekontu orokorretan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

reko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabideen bitartez jakin dugunez, Estatuko 2012rako aurrekontu orokorren proiektuak aurreikusten du Nafarroak 631 milioi euro ordainduko dizkiola Estatuari, hitzarmen ekonomikoaren ondorioz. Zenbateko hori Nafarroako 2012rako aurrekontu indardunetan ezarritakoa baino ia 100 milioi euro handiagoa da.

Hona galdera:

- Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan jasotako aurreikuspenari eusten al dio? Bi zenbateko horietako zein hartu behar dugu aintzat?

Iruñean, 2012ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Osasun Zerbitzuan koordainketa sartuko ote duen.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Osasun Zerbitzuan koordainketa sartuko ote duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak heldu den apirilaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak koordainketa –horren modalitatea zein ere den– sartuko al du Nafarroako Osasun Zerbitzuan?

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak abian jarriko dituen Alderdi Popularrak iragarritako neurri ekonomikoak, zerga-amnistiari eta osasun nahiz hezkuntza arloko murrizketei dagokienez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak abian jarriko dituen Alderdi Popularrak iragarritako neurri ekonomikoak, zerga-amnistiari eta osasun nahiz hezkuntza arloko murrizketei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak abian jarriko al ditu Alderdi Popularrak iragarritako neurri ekonomikoak, zehazki zerga-amnistiari eta osasun nahiz hezkuntza arloko murrizketei dagokienez?

Iruñean, 2012ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Administrazio Publikoko teknikari lanpostuetarako oposizioan plika-sistema aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Administrazio Publikoko teknikari lanpostuetarako oposizioan plika-sistema aldatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 14ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Foru Komunitateko Administrazio Publikoko teknikarien lanpostuak betetzeko hautaprobetan pliken sistema erabiltzeari buruz (PES 205/11). Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna.

1) Zer arrazoi egon da pliken sistemaren ordeztu epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzeko?

Administrazio publikoko teknikarien lanpostuak (arlo juridikoa) betetzeko Foru Komunitatean egin diren deialdi guztietan –lehena 1985ean argitaratu zen– izangaiak jendaurrean irakurri behar izan dituzte ariketak, 2008an argitaratutakoan izan ezik, orduan deialdia egin zuen organoak egokitzat jo baitzuen ordura arte erabiltzen zen sistema aldatu eta pliken sistema ezartzea ariketa batzuetarako.

Azken deialdian, zeina 2010ean argitaratu baitzen, eta aurreko deialdiko esperientziaren argitan, deialdia egin duen organoak erabaki du komenigarria dela halako deialdietan ohikoa den irakurketa publikoaren sistemara itzultzea. Horren arrazoa da irakurketa publikoaren sistemak erraztu egiten diola epaimahaiari ariketen zuzenketa, aintzat hartuta izangaien kopurua handia izaten dela eta erantzunak luzeak izaten direla; kontuan hartu behar da 100 izangaitik gora izaten direla, eta bost orduz idazten aritzen direla.

Jendaurreko irakurketak bidea ematen du edozein interesdun ekitaldira joan ahal izatea, eta

horrek, era berean, hautaketa prozesuaren objektibotasuna eta gardentasuna ziurtatzen du. Izan ere, halako lanpostuetarako, beste administrazio batzuek ere sistema hau erabili ohi dute, besteak beste, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Nafarroako Parlamentuak berak.

Gainera, Auzitegi Gorenak, 2009ko urtarrilaren 19ko epaian, irakurketa publikoaren sistema bermatu zuen, Foru Komunitateko Administrazioaren deialdi baten aurka aurkeztutako errekurso baten harira. Errekurso horretan, zalantzan jartzen zen, besteak beste, pliken sistema.

2) Nor izan da edo nortzuk izan dira pliken sistemaren ordeztu epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzearen arduradun politiko edo teknikoak?

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea da deialdia onesteko eskumena duen organoa, bai eta prozeduraren ardura duena ere.

3) Parlamentuan onetsitako bi mozioetan –bat gehiago handiz onetsi zen, eta bestea aho batez– Nafarroako Gobernua premiatzen zen funtzio publikoan sartzeko oposizioetako deialdietan pliken sistema erabil dezan. Zer arrazoi egon dira bi mozio horiek ez betetzeko?

Ezin da esan kasuko deialdian ez direla bete funtzio publikoan sartzeko oposizioetako deialdietan pliken sistema erabiltze aldera Parlamentuan onetsitako mozioak; besteak beste, deialdi hori 2010eko apirilaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelako, hau da, bi mozio horiek onetsi baino lehenago.

4) Posible izanen zen iazko apirilean argitaratutako deialdia aldatzea, berriz ere pliken sistema ezartzeko eta 2010eko azken hiru hilabeteetan egindako azterketetan izangaien anonimotasuna bermatzeko?

Deialdiak, behin argitaratuta, soilik alda daitezke administrazio-prozedurari eta administrazio-xedapen eta -ekintzen berrikusketari buruzko arauetan aurreikusitako kasuetan eta bertan xedatutako baldintzak beteta, eta ez da hori hautaketa prozesu horren kasua.

5) Beste zer oposizio-deialditan aldatu da, aldatu baldin bada, pliken sistema, horren ordeztu

epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzeko?

Foru Komunitateko Administrazioan sartzeko deialdien artean, Administrazio publikoko teknikari- en lanpostuenak (arlotu juridikoa) dira epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa hasieratik eta modu orokorrean erabiltzen dutenak.

6) Etorkezunari begira, Nafarroako Gobernuak pliken sistema, eta ez besterik, erabiliko al du, epaimahaiaren aurrean oposizio gileen anonimotasuna ziurtatzeko?

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen deialdietako hautaprotetan, gaur egun egiten den modu bere-

an, izangaien anonimotasuna ziurtatzen duten sistemak erabiltzen jarraituko dugu, proben ezaugarriek hori teknikoki ezinezkoa egiten duten kasuetan izan ezik. Hala ere, beti zainduko da hautapen prozeduren gardentasuna eta berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren konstituzio-printzipioen aplikazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, Miranda jaunak 2011ko irailaren 15ean Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Miranda jaunak 2011ko irailaren 15ean Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, iragan irailaren 15eko agerraldiari buruz (PES-000176). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua ez da hedabideek argitaratutako informazioaren erantzule.

Diru-sarrera ez finantzarioak baditu beste osagai batzuk, tributuek gain: badira tasak eta prezio publikoak (3. kapitulu), transferentzia arruntak (4.

kapitulu) eta ondarearen diru-sarrerak (kontu korronteetako interesak, 5. kapitulu). Hori dela eta, tributuei buruzko diru-sarrerak ez dute zertan bat etorri behar diru-sarrera ez finantzarioekin.

Gastu ez finantzarioa sailkapen ekonomikoko 1. kapitulutik 7.era bitartekoei buruzkoa da; aldiz, aurrekontu-gastu osoan sartzen dira, baita ere, 8. eta 9. kapituluko gastuak; hain zuzen, aktibo finantzarioak eskuratzeari buruzkoak eta pasibo finantzarioak kitatzeari buruzkoak (zorren amortizazioa).

Obrak eta ordainketak atzeratzeak esan nahi du betebeharren aitortza dakarten jarduketan epea luzatzea. Epea luzatzeak eska lezake jada formalizatutako kontratuetan aldaketak egitea, eta, hori dela-eta, Gobernuak Lege Dekretu bat onetsi zuen, zeinaren bidez aurrekontu egonkortasunaren helburua interes publikoko arrazoitzat har daitekeen, aldaketa horiek justifikatu ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Akitaniarekiko lankidetzaren hitzarmenari dagokion kontusailaren bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Akitaniarekiko lankidetzaren hitzarmenari dagokion kontusailaren bilakaerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, Akitania-Nafarroa Mugez gairako Lankidetzaren Hitzarmenaren esparruan aurreikusten diren gastuei buruz (PES-000185).

Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Une honetan, Akitania-Nafarroa Batzorde Instituzional Iraunkorrek 2011ko maiatzaren 23ko bilkuran hautatutako proiektuen esleipena zain dago, Aurrekontu eta Finantza-politikako Zerbitzuak, Kontu-hartzaitzak iradokita, onetsi dezan 2010eko abenduan onetsi zen urte anitzeko gastuaren aldaketa bat. Horrek dakar 2011 eta 2012rako kreditu erabilgarria egokitu behar izatea onuradunen aurrekontuari finantzaketa-portzentajea aplikatzaren ondorioz ateratzen diren zenbatekoetara.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen administrazio-tasen eta administrazio-zerbitzuengatiko prezioak igotzea.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen administrazio-tasen eta administrazio-zerbitzuengatiko prezioak igotzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du, idatziz erantzuteko, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenei buruz, administrazio-tasen eta administrazio-zerbitzuengatiko prezioei dagokienez (PES-000198). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Eskatutako informazioa jasoko da Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuan, zeina heldu den azaroaren 7an Parlamentura igorriko baita, bertan izapidetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, onura fiskalen xehakapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du onura fiskalen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, onura fiskalei buruz (PES-000187). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Galderan aipatutako bigarren hiruhilekoari buruzko informazioan agertzen den datua Nafarroako Parlamentuak onetsitako hasierako aurrekontuaren gainekoa da, eta bertan ez dira kontuan hartu ekitaldi honetan aplikaturiko onura fiskalak. 627 milioi euroen zenbateko hori xehakatuta agertzen da Nafarroako 2011ko aurrekontu orokorrak onesteko beharrezkoa den gainerako dokumentazioarekin batera Parlamentura igorritako "Memoria y descripción de programas" izeneko dokumentuaren 3. atalean, eta dagokie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako eta Sozietateen gaineko zergarako aurreikusitako onura fiskalei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du osasun zerbitzuetako itxaronzerrendei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du osasun zerbitzuetako itxaronzerrendei buruz (8-11/PES-00199). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna.

1.- Zertan gauzatuko da zehazki osasun zerbitzuetako itxaronzerrendak arintzeko proposatzen den "pizgarrien" sistema berria?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua aztertzen ari da beste autonomia erkidego batzuetan ezarritako kudeaketa-hitzarmenei buruzko programak, zeinak bideratuta baitaude kudeaketa-eredu parte-hartzaile batean sakontzera, gure baliabideak modu efizienteagoan aprobetxatu eta ematen dugun laguntza gaixoen beharretara modu eraginkorrean egokitze aldera.

a) Zein ereduri jarraituko dio?

Jarraitu beharreko eredua prestatzen ari gara une honetan.

b) Noiz ezarriko da?

Aurreikuspenen arabera, 2012an zehar ezarriko da.

2.- Osasun arloko eragileekin (sindikatuak, profesionalak...) adostutako sistema izanen al da?

Kontuan hartuko dira profesionalen eta kasuko eragile sozialen iritzi eta balorazioak.

3.- Zer irizpide erabiliko da sistema horretan parte hartuko duten profesionalak hautatzeko?

Komenigarria izanen da esperientzia piloturen bat ezartzea, sistemak funtzionatzen duen egiaztatze aldera. Sistema berria zein zerbitzutan aplikatu aztertzen ari gara.

a) Informazio hori nola emanen da aditzera?

Bilerak eginen dira zerikusia duten aldeekin.

4.- Zenbateko gastua izanen du? Aurrekontuko zein kontusaili egotziko zaio?

Hori ez dago kalkulatuta oraindik. Gai horrek azterketa sakona eskatzen du, eta azterketa hori ez da amaitu oraindik.

5.- Aurreko "gizalanean" sistemarekiko aurrezpen ekonomikorik izanen al du? Aurreikuspena eskatzen dugu.

Kudeaketa-eredua prestaketa-fasean dagoenez, ezinezkoa zaigu une honetan horri buruzko datu ekonomikorik ematea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, genetikoki eraldatutako makalekin landa-probak egiteko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du genetikoki eraldatutako makalekin landa-probak egiteko proiektuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, genetikoki aldatutako organismoekin eginen den B/ES/11/26 jarduerari buruz (8-11-/PES-000200). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Aurreneko galderari dagokionez: Makal-plantazioak zer azalera hartuko du?

Sustatzaileek aurkeztutako eskaera jendaurrean jarri zen, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren ekainaren 3ko 926/2011 Ebazpenaren bidez. Eskaera horren arabera, saiakuntzak 0,6335 hektareako azalera hartuko du.

Bigarren galderari dagokionez: Zer erabilera emanen zaio gero saiakuntzari?

Eskaeraren beraren arabera, azterlana amaitu eta lehen loraldirako aurreikusitako adina baino lehen, saiakuntza bertan behera utziko da eta zuhaitzak moztu eta erraustu eginen dira.

Hirugarren eta azken galderari dagokionez: Proiektua zer diru-laguntza ari da jasotzen?

Departamentu honek ez du inolako diru-laguntzarik eman jarduera horretarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 28an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iberdrolaren akzioak maileguen berme gisa erabiltzeari buruz (8-11-/PES-00201). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Aurreneko galderari dagokionez: Murriztutako funtsen zer zenbateko bermatzen dute akzio horiek?

Ulertzen dugu mailegatutako funtsei buruz gal-
detzen dela, eta ez murriztutako funtsei buruz.
Hala bada, gaurko egunean SODENAK kontratatu-
ta dituen kreditu-kontuek Iberdrolaren akzioen
bidez bermaturiko 175.000.000 euro arteko erabil-
garritasun-muga dute. 2011ko irailaren 30ean, kre-
ditu kontu horietatik erabilitako saldoak
125.136.030 euro egin zuen.

Bigarren galderari dagokionez: Zer ekimen abi-
arazi ditu Sodenak mailegu horiei dagokienez?
Horiei buruzko xehetasun guztiak jaso nahi ditugu.

Mailegu horiekin ezarri dira 88 kapital-eragiketa
eta partaidetzako sozietateentzako mailegu eta
kredituen 51 eragiketa.

Eginiko kapital-eragiketak konpainia hauentzat
egin dira:

3P Biopharmaceuticals, S.L
Activery Biotech, S.L.
Digna Biotech, S.L.
UTE Proyecto CIMA
Proyecto Biomedicina CIMA, S.L. (BITA)
Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.
Ojer Pharma, S.L.
Proretina Therapeutics, S.L.
Suan Biotech FCR
Ysios Biofun I
Apex/Twin Screw
Mizanor, S.A.
Olus Tecnología, S.L.
Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.
Caviar del Reyno, S.L.
Angel Garro, S.L.
Tutti Pasta, S.A.
Cultivos de Navarra, S.L.
Biomendi , S.L.
Ecoenergía Navarra, S.L.
Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.
Fidima
Natural Climate System, S.A.
Soluciones y Sistemas Solares, S.L. (3S)
Investigaciones y desarrollos eólicos, S.L. (INDE-
OL)
Cromasa Identificación Electrónica, S.A.
Wututu, S.L.
Open Bravo, S.L.
Fundación para la Innovación y Desarrollo de la
Nanotecnología (FIDeNa)
Nanotech Fund FCR
Principia Technology Group, Inc.

Elara Ingenieros, S.A.
Smart Medical Group S.L.
Sociedad Logística Alimentaria Navarra, S.L.
(SLAN)
Ingeniería Domótica, S.L.
Navarra de Tratamiento del Agua, S.L. (Wasserlab)
Foro Europeo de Formación Empresarial, S.L.
Pamplona Learning Spanish Institute, S.L.
Fondo de Desarrollo Turístico SPE, S.A. (FONDE-
TUR)
Parque de la Naturaleza de Navarra, S.A.
Nasuinsa
CEIN
Kams Kayaba, S.A.
Sunsundegui, S.A.
Start Up Capital Navarra, S.A.:
Finaves
Inveready Seed Capital, S.C.R.
Mondragón Navarra SPE, S.A.
Fondo Joven Empresarios Jóvenes, S.A.
Estudios de Ingeniería Adaptada, S.L. (EINA)
Lorpenak Navarra, S.L.
EPSILON
CTC
MTS Tobacco, S.L.
Nafarroako Kutxa (Iberdrolaren akzioen estaldura-
eragiketa)

Mailegu eta kredituen eragiketak konpainia
hauentzat egin dira:

Epe luzerako kredituak elkartuentzat

NOI
Parquenas
Open Bravo, S.L.
Smart Medical Group S.L.
Ángel Garro, S.L.
Estudios de Ingeniería Adaptada, S.L. (EINA)
Olus Tecnología, S.L.
Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.
Activery Biotech, S.L.
Navarra de Tratamiento del Agua, S.L.
Mizanor, S.A.
Epe luzerako beste kreditu batzuk
Epsilon 5
Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.
Cultivos de Navarra, S.I -Lizarraga
EINA, S.L.- Castillo
ESA, S.L. -Ozcoidi

Epe laburrerako beste kreditu batzuk

CTC-Construcción
 Tutti Pasta, S.A.
 Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.
 Proyecto Biomedicina CIMA, S.L. (BITA)
 3P Biopharmaceuticals, S.L.
 Fidima
 SOISY INVESTMENT
 Ángel Garro, S.L.
 Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.
 Smart Medical Group S.L.

Sunsundegui, S.A.
 Activery Biotech, S.L.
 Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.
 Miyabi (Natural Climate Systems, S.A.)
 Cromasa Identificación Electrónica, S.A.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 28an.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako eta Madrilgo ordezkariak eginiko bilerari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako eta Madrilgo ordezkariak eginiko bilerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutetako, uztailaren 27an Ekonomia eta Ogasun Ministerioarekin eginiko bilerari buruz (PES-202). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Bilera irailaren 15ean egin zen, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren egoitzan (Alcalá kalea, 9, 1. solairua), eta bertan ondokoek hartu zuten parte:

– Ogasuneko eta Aurrekontuetako Estatuko idazkari Juan Manuel López Carbajo jaunak.

– Autonomia Erkidegoetik eta Toki Entitateetiko Koordinazio Finantzariorako zuzendari nagusi Alain Cuenca García jaunak.

– Nafarroako Gobernuak Bigarren lehendakari-orde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak.

– Aurrekontuko zuzendari nagusi Juan F. Franco Pueyo jaunak.

Ez zen bileraren gai zerrendarik izan. Bileran, aztergai izan zen Nafarroako Gobernuak defizitaren helburua betetzea 2011n.

Nafarroako Gobernuak bere konpromisoa adierazi zuen, 2011rako aurreikusitako defizitaren helburua betetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 28an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak

galdera egin du, idatziz erantzutetako, geriatriako zerbitzu-ematearen jarraipenari buruz (8-11/PES-00203). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna.

Geriatriako zerbitzuak inoiz ez dio utzi aktibo egoteari Nafarroako Ospitalegunean. Ospitaleguneko C pabiloiko obrak zirela eta, ohe kopurua murriztu egin zen, baina, lehen esan bezala, zerbitzuak ez dio inoiz utzi funtzionamenduan egoteari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udalerrriak katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua dela dioen iritziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udalerrriak katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua dela dioen iritziri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 14ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udalerrriak katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua delako

iritziari buruz (8-11/PES-00207). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna.

2011ko irailaren 28an, aurrekontuen doikuntzarako neurriak aurkeztu zitzaizkien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei, Erizaintza Eskolan. Bilera hartan, ondokoa esan zen, hitzez hitz:

"Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere gain har ditzakeen edota zenbait udalerrik katalogoaz gain eskaini nahi dituzten zerbitzuei buruzko itunak berrikustea (Josefina Arreguirekiko Buruko Osasunari buruzko ituna; "Laira" emakumeari laguntzeko zentroarekikoa; "Argia" familia-plangintzako zentroarekikoa eta Tafallako Udalarekiko hitzarmen terapeutikoa)."

Zenbait udalerrik katalogoaz gain eskaini nahi dituzten zerbitzuarekin aipatzen zen Tafallako udalerrian eskaintzen den logopedia zerbitzua. Aipatzen diren gainerako kasuei buruz, Josefina Arregui klinikarena barne, esan zen ituna berrikusiko zela, ikusteko ea zerbitzua baliabide publikoekin eman daitekeen, edota ituntzen jarraituko den eta,

hala egitekotan, zer baldintzatan. Kontseilariak Parlamentuan iragarri zuen moduan, Josefina Arregui zentroari proposatu diogu 2012rako 19 postu ituntzea, dementziak dituzten pertsonak tratatzeko.

Une honetan, beste lan ildo batzuen artean, prestatzen ari gara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak patologia desberdinetan dituen ituntze-beharrei buruzko plangintza bat, eta horren emaitzen arabera zehaztuko da zenbaterainokoa den, epe ertain eta luzera, Josefina Arregui Klini-

karen moduko zentroyen beharra. Gure helburua da plangintza hori Nafarroako Gobernuaren zentro laguntzaileetara igorri ahal izatea, haiek beren aurreikuspena egin ahal izate aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

